



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura Sailburuordetza
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Viceconsejería de Cultura
Dirección de Patrimonio Cultural

Irakasle hori:

Ikasturtearen hasiera dela eta, jakinarazten dizugu Eusko Jaurlaritza «**Kultura Ondarea Saria**» 2020 deitu eta arautzen duen Agindua izapidetzen ari dela. Agindua izapidetzen ari da eta EHAAn argitaratuko da urtea bukatu baino lehen, baina, hala ere, Sarian parte hartzeko aukera kontuan hartzera animatzen zaituztegu Kultura Ondareari buruzko bideoak eginez ziren Zentroko ikasgai eta ikasturteko lanetako batzuen barruan.

Eusko Jaurlaritzako **Kultura Ondarearen Zuzendaritzak** **Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren** lankidetzarekin gauzatutako ekimen baten **seigarren edizioa** da, eta EAEko ikastetxe ofizial publiko zein pribatuetako ikasle hauek saritzea du helburu: Euskal Kulturaren Ondarearen ezagutza zabaltzen hobekien lagundu izana erakusten dutenak. Ikasle horiek **DBHko hirugarren eta laugarren mailan, Batxilergoko lehen mailan eta Erdi mailako heziketa-zikloen lehen mailan** matrikulatuta egon behar dute, 2019-2020 ikasturtean.

Eskertuko genizuke 2020ko «Kultura Ondarea» sariari buruzko informazioa irakasleen artean eta ikastetxeko departamentuetan zabaltzea, horiek guztiak euren parte-hartzea aurrez planifikatu ahal izan dezaten edo saria sartu ahal izan dezaten ematen dituzten irakasgaien urteko programazioan.

Sari honen bidez sustatu nahi dena: batetik, ikasleen talde-lana, zeina ikastetxeetako irakasleek gidatuko baitute, eta, bestetik, kultura-ondarearen ezagutza sare sozialen bidez zabaltzea, zeintzuei sariaren web-orrian eman nahi baitzaie euskarria (www.kulturaondarea.euskadi.eus).

«Kultura Ondarea» 2020 sariaren helburua da hezkuntza-jardunean ekimena, berrikuntza, ekintzailatzarako gaitasuna, sormena eta gizarte-garapena bultzatzea, Euskal Kultura Ondarea zeinahi formatan ezagutzeko eta baloratzeko (ondare materiala zein immateriala). Hau da:

a) Bultzatzea, batetik, kultura berritzailea, eta, bestetik, Euskal Kultura Ondarearen gaineko ezagutza ikertzeko, berreskuratzeko eta eraikitzeko esfortzuaren aintzatespena.

Estimado/a profesor/a

Con el comienzo de curso, te comunicamos que el Gobierno Vasco está tramitando la Orden por la que se convoca y regula el Premio «**Kultura Ondarea Saria**» 2020. Si bien la Orden se está tramitando y será publicada en el BOPV antes de fin de año, desde ya os animamos a contemplar la posibilidad de participar en el Premio incorporando la elaboración de videos relativos al Patrimonio Cultural en algunas de las asignaturas y trabajos de curso de vuestro Centro.

Se trata de la **sexta edición** de una iniciativa llevada a cabo por la **Dirección de Patrimonio Cultural** en colaboración con la **Dirección de Innovación Educativa del Gobierno Vasco**, cuya finalidad es premiar a estudiantes matriculados/as en los cursos **tercero y cuarto de Educación Secundaria Obligatoria, primero de Bachillerato y primero de Ciclos Formativos de Grado Medio**, en centros oficiales públicos o privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco durante 2019-2020, que demuestren una mejor contribución a la difusión del conocimiento del Patrimonio Cultural Vasco.

Te agradeceríamos que difundas la información de este Premio «Kultura Ondarea» 2020 entre el profesorado y departamentos de tu centro para que puedan planificar con tiempo su participación en el mismo o lo incorporen en las Programaciones Anuales de las respectivas materias que imparten.

Con este Premio se pretende incentivar el trabajo en equipo del alumnado, orientado por el profesorado de los centros; y la difusión del conocimiento del Patrimonio Cultural Vasco a través de las redes sociales, a las que quiere dar soporte la página web del Premio (www.kulturaondarea.euskadi.eus).

El Premio «Kultura Ondarea» 2020 pretende, fomentar la iniciativa, innovación, capacidad emprendedora, creatividad y el desarrollo social de la actividad educativa relacionada con el conocimiento y la valoración del Patrimonio Cultural Vasco en cualquiera de sus formas, tanto materiales como inmateriales. O lo que es lo mismo:

a) Fomentar la cultura innovadora y el reconocimiento al esfuerzo por investigar, recuperar y construir el conocimiento sobre el Patrimonio Cultural Vasco.



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Kultura Sailburuordetza
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Cultura
Dirección de Patrimonio Cultural

- b) Euskal Kultura Ondarea ezagutzera ematea, euskal hezkuntza-sistematik eta euskal hezkuntza-sistamarako.
- c) Euskal Kultura Ondarearekin lotutako hezkuntza-ekimen berritzaileak abian jartzea babestea.
- d) Euskal Kultura Ondarearen ezagutza nabarmentzen eta eraikitzen gazteek duten eginkizuna aitortzea.
- e) Gazteen artean tresna teknologikoen erabilera sustatzea jabari publikoko kultura- eta hezkuntza-edukiak sortzeko.
- b) Dar a conocer el Patrimonio Cultural Vasco desde y para el Sistema Educativo Vasco.
- c) Apoyar la puesta en marcha de iniciativas educativas innovadoras relacionadas con el Patrimonio Cultural Vasco.
- d) Reconocer el papel de la juventud en la puesta en valor y construcción del conocimiento vinculado al Patrimonio Cultural Vasco.
- e) Fomentar entre la juventud la utilización de herramientas tecnológicas para crear contenidos culturales y educativos de dominio público.

Hiru bideorik onenak egin dituzten taldeetako kideei (tutorea barne) sari hau emango zaie: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatutako bisita kultural bat, Irlandara, 7 egunetarako. Bertako gidari batek lagunduko ditu pertsona sarituak ibilbide batean zehar: Irlandako toki entzutetsuenetako zenbait bisitatuko dituzte, eta haien kulturako adierazpen esanguratsu batzuk ezagutuko dituzte. Bidaiak barne hartzen ditu hegaldia, ostalua, otorduak eta gidaria, eta ekainean egingo da, ikasturtea amaitu eta gero.

El Premio será concedido a los/as integrantes de los equipos de trabajo que hayan elaborado los tres mejores videos, incluido el/la tutor/a, y consistirá en una visita cultural a Irlanda de 7 días de duración a cargo del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco. Un/a guía local acompañará a las personas premiadas a lo largo de un itinerario que les permitirá visitar algunos de los lugares más emblemáticos de Irlanda y conocer manifestaciones significativas de su cultura. El viaje incluye vuelo, alojamiento, comidas, y guía, y se realizará en el mes de junio, una vez finalizado el curso escolar.

Gutun honen bidez, 2020ko "Kultura Ondarea" sarian lankidetzan jardutea eta parte hartzea eskatzen dizuegu, eta gogorarazten dizuegu gure laguntza eta aholkularitza baliatu ahal izango duzuela prozesu osoan zehar (bai gaiak hautatzerakoan, bai bideoak egiterakoan) (945.01.95.19).

Esta carta busca vuestra participación en el "Kultura Ondarea Saria" 2020 y os recuerda que, durante todo el proceso de selección de temas o elaboración de los vídeos, podréis contar con nuestra ayuda y asesoramiento (945.01.95.19).

Adeitasunez,

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 23a. / 23 de setiembre de 2019.

Mikel Aizpuru Murua
KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE PATRIMONIO CULTURAL

Lucía Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE INNOVACIÓN EDUCATIVA